

## KAPITALAREN MINTEGIA

### 1. SAIOA

#### SARRERA

Hiru dira *Kapitala* obraren hasierako atal honetan kontutan hartu beharrekoak:

Lehenik eta behin, Kapitala obran sistema kapitalistaren esposizio *teoriko-logikoa* egiten da, eta ez, sarri modu okerrean defendatu den bezala, esposizio *historikoa*. Esposizio historiko bat gertakizunen aurkezpen sekuentzian datza, hau da, denboran zehar gertatutakoak modu ordenatuan aurkeztean. Esposizio teoriko-logikoa, ordea, ez ditu gertakizunak kontatzen, errealitate bat *pentsemenduan* berreraiki baizik, errealitate hori modu ordenatuan azaldu, errealitatearen analisi *objektiboa* aurkeztu. Bada, *Kapitala* sistema kapitalistaren nolatasuna aztertzen da, bere etapa garatua soilik osoki azaleratzen dena, eta ez mendeetan zehar emandako garapen historikoa<sup>1</sup>.

Hala ere, egon badago obra honetan esposizio historikorako tartea. Hau, ordea, ez da nagusi eta soilik agertzen da esposizio teoriko-logikoari *lagungarri* izateko, edo berak azaldu ezin dituenak azaltzeko. Kasu hori da, esate baterako, XXIV. kapituluaren gertatzen dena. Bertan, kapitalaren genesis historikoaren prozesua azaltzen da, jatorrizko metaketa prozesu gisa ezaguna dena. Kapitala obran azaltzen den metabolismo sozialaren *baldintza* historikoa da jatorrizko metaketa prozesua, eta, horregatik, ezin du kapitalaren logikak berak azaldu, berari *kanpoko* eta aurrekari zaion prozesu historikoa baizik.

Ildo beretik, obraren lehenengo kapituluak, merkantziaren analisia jorratzen duenak, ez du prozesu historiko bat lantzen. Hau da, obraren hasieran merkantziaren analisia lantzeak ez du esan nahi merkantzia denik kapitala edota sistema kapitalistaren lehen elementu historikoa. Kontrara, merkantziak leku hori okupatzen du hain zuzen ere garapen teorikoan kategoria simple eta orokorra delako, eta bere barne *kontraesanaren* (balioa eta erabilera balioaren artekoa) garapen teorikoa sistema kapitalistaren garapen teorikora eramaten duelako.

Bigarrenik, obran deskribatzen den merkantzia ekoizpen modu kapitalistari dagokion merkantzia garatua da, eta ez aurreko garai historikoetan agertzen den merkantzia.<sup>2</sup> Hau argi azaleratzen da merkantziaren *metamorfosia* edo *zirkulazio sinplea* (M-D-M) aztertzen denean. Izan ere, M-D-M formulak balioaren *forma* aldaketa edota baliokideen arteko leku aldaketa (trukea) adierazten du. Baliokideen trukaketa gerta dadin, ezinbestekoa da balioa forma sozial orokorra izatea, eta hori soilik da posible merkantzien ekoizpena nagusi den errealitate historikoan, hots, sistema kapitalistan. Aurreko garai historikoetan merkantzia bazterrean agertzen zen, ekoizpenaren *soberakinak* hartzen zuen forma gisa. Horregatik, balioak ezin zuen *indar sozialik* izan, ez baitziren lan desberdinen produktuak aurrez aurre agertzen, ekoizleentzat erabilera baliorik ez zuten horiek baizik, *ausaz* eta ez *ohituraz*. Behar ez zena behar zenagatik trukatzeko zen helburua, ez lan *pribatuak* modu abstraktuan aldatzea.

---

<sup>1</sup> Obra desberdinek sakontzen dute Ekonomia Politikoen Kritikaren *metodoa* deitutakoan. Horien artean gomendagarria da Évald Iliénkov filosofoaren *Dialéctica de lo abstracto y lo concreto en el capital de Marx*.

<sup>2</sup> Ikuspuntu hauen defentsa egiten du César Ruiz Sanjuán-ek *Historia y sistema en Marx* lanean, Michael Heinrich ikur duen Marxen Irakurketa Berriaren oinarrietan sostengatuta.

Azkenik, M-D-M, edo zirkulazio sinplea, abstrakzio bat da, bere erreproduzio baldintzak *ekoizpenaren* eremuan, hots, zirkulazio sinpletik kanpo, aurkitzen dituena.<sup>3</sup> Izan ere, merkantzia, lehenengo metamorfosian, diru bilakatzen da, ondoren, bigarren metamorfosian, beste erabilera balio bat duen merkantzian bilakatzeko. Azkeneko hau kontsumoaren eremuan sartzen da, zirkulaziotik kanpo geratzen da. Zirkulazioa erreproduzitzeko ezinbestekoa da, bada, bertara merkantzia berriak igortzea, ekoizpenaren esparruan sortzen diren merkantziak. Zirkulazio sinplean balio kantitate berdinean oinarritzen diren forma aldaketak ematen dira, edo balio kantitatea balioztatzen da. Ez da, ordea, balio kantitate horren jatorria bertan aurkitzen. Hori ebazteko ezinbestekoa da ekoizpen kapitalistaren esparruan barrena sartzea.

---

<sup>3</sup> Ibid.